

# «Garaia da andreok lehen mailako ardura politikoak hartzeko»

**Beatriz Artolazabal** • EAJren Gasteizko alkategaia

Urteetan pilatutako «esperientzia» baliatuta, Gasteizko Udalerako jauzia egingo du Artolazabalek. Azaldu du gobernu «sendo» bat nahi duela, eta itunak egiteko orduan PSE-EE lehenetsiko duela.

## Edume Begiristain Gasteiz

Hamasei urteren ostean, «etxera» itzuliko da Beatriz Artolazabal (Gasteiz, 1970), Gasteizko Udalerako. «Ohorez» eta «apaltasunez» hartu du alkategai izateko ardura, eta «naturalizat» jo du Gorka Urarani erreleboa hartzea. Gaztelaniaz egin du elkarrizketa.

### Nola hartu duzu erronka?

Erronka garrantzitsua eta zirraragarria da. Ohorez, apaltasunez, erantzukizun handiz eta urte hauetan zehar pilatu dudana esperientzia eta jakinduria baliatuta hartu dut erronka. Duela 23 urte Gasteizko zinegotzi izan nintzen, eta orain etxera itzuliko naiz.

### Historian lehen aldiz, emakume bat izango da Gasteizko alkatea.

Bada garaia andreok lehen mailako ardura politikoak gure gain hartzeko, erabakiak hartzen diren tokietan egoteko; jauzi hori egin behar dugu. Emakumeok egiteko modu eta ikuspegi ezberdin bat dugu, ez hobea, ez okerragoa, ezberdina baizik. Akordioetara iristeko erraztasuna ere badugu.

### Erantzukizun handia da Gorka Urararen lekukoa hartzea?

Alkate paregabea izan da Gorka. Oso egoera zailean hartu zuen aginte makila, baina liskar giro hori gaitzetzeko gai izan da, eta aurkitu zuen baino askoz hiri hobea utzi digu. Bizitzan eta politikan zikloak daude eta errelebo hau naturala da. Gorkak eta biok alderdi berekoak gara, printzipio eta balio berberak defendatzen ditugu, nahiz eta bakoitzak bere estiloa duen.

### Eta zein da zure estiloa? Zer ekarpen egin diezaiokezu hiriari?

Erakundeen ikuspegi orokor bat dut, eta ongi ezagutzen ditut gure egitura instituzionala eta eskumenak. Enpresa pribatua eta publikoan metatutako esperien-

tzia eta ezagutza oso baliagarriak izango zaizkidala uste dut.

### Duela hamasei urte utzi zenuen udala. Zaila izaten ari da udal politikara bueltatzea?

Azken urteotan, Gasteizko udal politika zeharka jarraitu dut, baina azken hilabeteotan erabateko murgiltzea egingen ari naiz, ez bakarrik erakundearen ezagutzeko, baizik eta bertako auzoetara hurbiltzeko eta herritarren arazoak lehen eskutik jasotzeko.

### Garraioa izan da legealdiko gai izarretako bat, baita datozen lau urteetako erronka nagusia ere. Zer neurri proposatzen dituzu?

Gasteizek mugikortasun iraunkorraren aldeko apustu irmoa egin du, oinezkoa erdigunean jarrita. Mugikortasunak iraunkorra, segurua eta garbia izan behar du, eta erronka da mugikortasuna eta jasangarritasuna uztartzea. Hor daude Zabalganera egingo

### «Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu behar dugu. [...] Zume onak ditugu mugikortasun politika egokia egiteko»

den tranbia, Salburura egin den tranbiaren adarra, baina baita bizikletaren erabilera, bidegorriak eta garraio publikoaren sustapena ere. Eta, noski, kontuan hartu behar dugu ibilgailu pribatua, eta oreka sortu garraio publikoaren, oinezkoen, bizikletaren eta garraio pribatuaren artean. Hori da hurrengo gobernuaren erronka nagusia.

### Araba, Bizkai eta Gipuzkoako mugikortasun ikerketaren arabera, Gasteiz da autoa gehien erabiltzen duen hiriburua eta autobusa gutxien erabiltzen duena.

2021ekoa da azterketa hori, pandemia garaikoa. Argi dago, beraz, garraio publikoaren erabilera pandemiak baldintzatuta egon zela. Nolanahi ere, Gasteizek

mugikortasunaren ikuspegitik dituen erronkak aztertu behar dira. Etorkizunari begira, Tuvisak eta tranbiak funtsezko zeregina izan behar dute. Adibidez, tranbiak Zabalganetik Jundizera iritsi beharko luke, egunero 20.000 auto baino gehiago baitoaz industria poligono horretara. Eta bizikletak ere ardatza izan behar du. Gasteiz bidegorri gehien duten hirietako bat da, ia 200 kilometro baititu. Europak dio ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu behar dugula, eta bide horretan joan behar dugula. Zume onak ditugu mugikortasun politika egokia egin ahal izateko. Hiri antolaketarako plan orokorrak industriarako aski lurzoru ez duela gordetzen kritikatu dute hainbat enpresak.

Hiriaren hazkunderako eta planifikaziorako funtsezko tresna da, baina sentikorrek izango gara egiten zaizkigun proposamen ezberdinekin. Plan honek ahalbidetuko du Gasteizen 25.000 etxebizitza eraikitzea eta, Betoñun, Gamarran, Arabako Parke Teknologikoan eta Jundizen industria lurzorua haztea. Hala ere, aztertu beharko dira hainbat enpresak egindako alegazioak, noski.

### Alkate bazara, zer neurri hartuko dituzu Gasteizen hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko?

Etorkizunean alokairu sozialeko politikak sustatu behar dira. Plan orokorrak 25.000 etxebizitza martxan jartzea aurreikusten du, baina, hala ere, beharrezkoa da erakundearen arteko akordioaren bidez alokairu sozialeko etxebizitzak sustatzea. Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmen baten bidez urratsa egin dugu gisa horretako 2.000 etxebizitza sortzeko.

### Urtaranez esan zuen Errealeor



RAUL BOGAJO / FOKU

## MOTZEAN

### Zer liburu ari zara irakurtzen?

Amaren eskuak eta *El Angel de la Ciudad*.

### Ikusi duzun azken telesaila?

*Transatlantic*.

### Musika talde bat eta abesti bat?

Queenen *Bohemian Rhapsody*.

### Zure bizitzako bidaia? Seme-alabekin eta senarrarekin egindako edozein.

### Zinema edo plataforma digitala? Plataforma digitalak askatasun handiagoa ematen dit.

### Garraio publiko bat? Hirian oinez ibiltzen naiz, eta distantzia luzeak badira, tranbian edo autobusean.

### auzo okupatua hustu behar zela. Iritzi berekoa zara?

Auzo horrek ez du zerikusirik etxebizitza premiarekin. Han bizi diren pertsonak jakin beharko lukete arauak guztiontzat direla, ezin garela anarkian bizi. Errealeorrek etxebizitzak okupazioa ez da onargarria.

### Horrek esan nahi du auzoa hustuko duzuela?

Neurriak hartu beharko ditugu; udalaren zerbitzu juridikoek planteatzen dituzten konponbideak aztertuko ditugu.

### Zer gertatuko da Arana egoitzan eraiki nahi den errefuxiatuen zentroarekin?

Ez da inolako elkarrizketarik egon. Sortutako polemika artifiziala izan zen, eta espero dut arazoa birbideratzea. Alkatea banaiz, elkarrizketaren bidea erabiliko dut akordioak lortzeko, eta egitasmoa birbideratzeko. Gasteiz hiri solidario bat da, eta ikuspuntu solidariotik erantzun behar zaio errefuxiatuen auziari. Baina zentroak, planteatu duten moduan, ez du bermatuko pertsona horien gizarteratzea. Guk euskal harrera eredu indibidualizatuaren alde egiten dugu, eta zentro horrek ez du hori bermatuko.

### Gasteizko gobernuak ez dute inoiz gehiengo osorik izan. Boto gehien biltzen duen zerrenda bazara, itunetarako PSE-EE lehenetsiko duzu?

Errespetuz jokatu behar dugu herritarrek erabakitzen dutenarekin. PSE-EEekin izandako koalizioaren formula egokia izan da, eta emaitzak eman ditu. Nahiko nuke Gasteizek gobernu sendo bat izatea, erronka garrantzitsuak eta estrategikoak bere gain hartuko dituen. Gasteizko gobernuak ez dute inoiz gehiengo osorik izan, eta hori ona da, negoziatzera behartzen zaituelako, baina gehiengo oso batek lasaitasun handiagoa ematen dizu neurriak bizkorrago bultzatzeko.